



IRALE R900 - 2023-2024 ikasturtea

Idoia Alonso Olivares

Xabier Baraja Núñez

Iratxe Sánchez Peña

AURKIBIDEA

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK	2
PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA GIROTZEA	5
FROGATXOA	7
1. MODULUA: IDATZIZKOTIK AHOZKORA	9
2. MODULUA: AHOZKO EZAGUNAK	13
3. MODULUA: AHOZKO EZEZAGUNAK EDO BAT-BATEKOAK	15
AMAIERAKO EKOIZPENA	18
EBALUAZIOA	20
BIBLIOGRAFIA	21

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Proiektu honen helburua bat-bateko ahozketasunari garrantzia ematea eta sustatzea da. Eskolan, dagoeneko, telesaioan arituak ginela, konturatu ginen ikasleek dena irakurtzen zutela edo buruz ikasten zutela; beraz, horren aurrean zerbait egiteko beharra ikusi genuen. Era berean, gure irakas-jardunaren hausnarketa egin eta gero, ahozketasuna, berez, ez genuela lantzen ohartu ginen. Hortaz, gure asmoa da ahozkoa modu sistematizatuan eta eraginkorrean lantzea eta trebatzea, ahozko gaitasuna hobetzeko, eta, ondorioz, telesaioen kalitatea hobetzea.

Sekuentzia didaktikoa prestatzean, buruan izan ditugu Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleak, aurten 5. mailakoak, hain zuzen ere. Gure ikastetxeak inguru erdaldun batean kokatzen dira, eta euskara maila eta erabilera baxuak dira.

Dokumentu honetan irakasleentzako proiektuaren gida topa dezakezue. Proiektuaren aurkezpena eta girotze ataletik aurrera beltzez agertzen dena ikasleentzako argibideak dira, morez, aldiz, irakasleentzako oharra edo argibideak dira. Hala ere, ikasleei modu xume eta erakargarri batean azaltzeko, [aurkezpen bat](#) prestatu dugu.

"Ekinaren ekinez, lortzen dira gauzak"

MODULUAK	JARDUERAK	HELBURU NAGUSIA	MATERIALAK
PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA GIROTZEA (saio 1)	1. Proiektuaren aurkezpen laburra + motibatze galderak 2. Aurreko ikasturteko telesaioa erakustea 3. Telesaioaren ebaluazioa	- Proiektua azaltzea - Helburu komunikatiboa aurkeztea	1. Galderak 2. Telesaio bat aukeratu 3. Aurretestuaren ebaluazioa
FROGATXOA (2 saio gehien jota)	1. Aurretestua: bat-bateko deskribapena besteek asmatzeko 2. Aurretestuaren ebaluazioa 3. Jendaurrean hitz egiteko beldurrak	- Ahulguneak eta indarguneak identifikatzea - Irakas-alderdiak zein izango diren erabakitzea	1. ClassDojo (deskribapenak asmatzen dituztenei puntuak emateko). Mentimeter (zuzeneko hitz hodeiak erantzunekin) 2. Aurretestuaren ebaluazioa 3. Padlet (beldurren hormairudia). Urduritasunari aurre egiteko pilulak
1. MODULUA IDATZIZKOTIK AHOZKORA (5-6 saio)	1. Hizlari onaren dekalogoia 2. Gure telesaioaren atalak azaltzea 3. Ikasleen ekarpenak (baleude) 4. Ereduak aztertu eta egokiena aukeratzea 5. Atal bakoitzaren ekoizpenak sortzea	- Telesaio baten atalak eta azpiatalak identifikatzea - Atal bakoitzaren lehen eredia prestatzea eta taldekideen artean ekoiztea	1. Aurkezle onaren dekalogoia 2. Atalen azalpena 4. Ereduak
2. MODULUA AHOZKO EZAGUNAK (3 saio)	1. Ebaluaziorako kontrol-zerrendaren azalpena 2. Nor da nor? 3. Marrazkiak edota hitzak emanda, istorioa asmatzea 4. Inprobisazioen	- Bat-bateko ahozkoan trebatzea eta elkarrekintza sustatzea - Norberaren ohiko indarguneak eta	1. Ebaluaziorako kontrol-zerrenda 2. Papertxoak eta <i>post-it</i> ak 3. Marrazkiak ("Mi estuche de pictos"),

	autoebaluazioa	ahulguneak identifikatzea	Flippity , ClassDojo 4. Ebaluaziorako kontrol-zerrenda eta Classroom
3. MODULUA AHOZKO EZEZAGUNAK EDO BAT-BATEKOAK (2-3 saio)	1. Mugitu gabeko azalpena 2. Ipuin baten marrazkiak emanda, istorioa asmatzea 3. Mintzodromoa 4. Inprobisazioen autoebaluazioa	- Hitzik gabeko komunikazioaren garrantzia lantzea - Ahozko bat-batekotasuna eta elkarrekintza lantzea - Aurrerapenak aztertzea eta autoerregulatzea	1. Irudiak (irudia 1 eta irudia 2) eta bideoa 2. Ipuin baten irudiak letrarik gabe eta Dixit kartak 3. Triptikoa gaia bideratzeko, eta taldeen antolaketa . 4. Ebaluaziorako kontrol-zerrenda eta Classroom
AMAIERAKO EKOIZPENA (2 saio)	1. Telesaioaren atalen aurreprestaketa 2. Zuzeneko telesaioa	- Telesaioarako proposamena prestatzea - Behin betiko telesaioa egitea	1. Lehenengo moduluko 5. jarduerako ereduak. 2. ClassDojo : asmakizuna nork kontatuko duen aukeratzeko. OBS programa erabiltzeko gida irakasleentzat
EBALUAZIOA (saio 1)	1. Autoebaluazioa 2. Koebaluazioa 3. Heteroebaluazioa 4. Sekuentzia Didaktikoaren ebaluazioa	- Ikasitakoaz hausnartzea eta ebaluatzea - Egindakoaz hausnartzea	1. Kontrol-zerrenda 2. Ebaluazio-diana 3. Errubrika 4. Ebaluazio-hausnarketa

PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA GIROTZEA

(saio 1)

1. Proiektuaren aurkezpen laburra eta motibatzeko galderak

Kaixo, lagunok!

Bazenekiten eskolan telesaioak egin ditugula? Gustatuko litzaizueke horien protagonistak izatea zuek ?

- Zer telebista-aurkezle ezagutzen dituzue? Eta zer Youtuber? Eta aurkezpenak euskaraz egiten dituztenak ezagutzen dituzue? [Egin zerrenda bat.](#)
- Eredu onak al dira?
- Zein uste duzue direla aurkezle on baten ezaugarriak? [Haiek ideiak botatzea eta Googleko aurkezpeneko diapositiban apuntatzea.](#) Aurrerago landuko ditugu hizlari on baten ezaugarriak.

Helburu komunikatiboa: ikasleek, galderen bidez, proiektuaren egoera komunikatiboaosatzen duten elementuak ezagutzea. Jarduera horiek, aldi berean, ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta girotzeko balioko dute.

2. Aurreko ikasturteko telesaioa erakustea

Hurrengo asteetan Arrontegi Eskolako telesaio 2.0 sortzen hasiko gara, iaz egindakoa hobetzeko asmoz. Ikus dezagun [adibidea](#)!

Aurreko ikasturtean, ikasleek telesaio batzuk prestatu zituzten, eta horietako bat erakutsiko diegu eredu moduan. Ikasleek telesaioaren atalak prestatuko dituzte edo horietan zuzenean parte hartuko dute, beraz, haien rola telebistako aurkezle-partaide batena izango da. Hartzaileak zein diren pentsatu eta horiek kontuan hartu beharko dituzte, ulergarria eta eraginkorra izan dadin.

Helburu komunikatiboa: proiektuaren egoera komunikatiboaosatzen duten elementuekin lehenengo kontaktua izatea.

3. Telesaioaren ebaluazioa

Orain, adibidea ikusita, ebaluatzeko [txantiloia](#) komentatuko dugu guztion artean. Gero, ahoz,

hobetzeko proposamenak adostuko ditugu. Uste duzue lortuko dituzuela proposatu dituzuen gauza guztiak?

Helburu komunikatiboa: ahozko komunikazioan eman behar diren alderdiez jabetzea, ondo daudenak azpimarratuz eta hobetu daitezkeenak detektatuz.

FROGATXOA

(2 saio gehien jota)

1. Aurretestua: bat-bateko deskribapena besteek asmatzeko

Telesaioa prestatzen hasi baino lehen, pixkatxo bat inprobisatzeko prest zaudete? Horretarako, bakoitzari paper bana emango zaizue. Paperean, hitz bat edukiko duzue eta deskribatu beharko duzue hitza bera erabili/aipatu gabe, besteek asmatzeko. Isilean egon beharko dugu, grabatuko dugulako. Zuen erantzunak hitz-hodei batean idatziko dituzue.

Objektu, marrazki, kirol... baten bat-bateko deskribapena egin beharko dute ikasleek, besteek zer den asmatzeko. Guk, bitartean, grabatuko dugu aurretestu moduan izateko. Ikasleek asmakizunaren erantzuna idazteko ordenagailuak erabili beharko dituzte. Mentimeter-eko hitz hodei bat sortuko dugu, ikasle bakoitzak erantzuna idazteko, kidea azaltzen dagoen bitartean. Dokumentuan aplikazioa erabiltzeko jarraibideak dituzte. Asmatzen duten hitz bakoitzeko puntu bat emango zaie ClassDojo-n.

- Aurretestua egin aurretik, kontsigna bakarra emango diegu: irakasleak ez du ez zuzenketarik, ez lanketa berezirik egingo. Horrez gain, ez ditugu kalifikatuko saio honetako ekoizpenak, nahiz eta hasierako ekoizpen hau oso baliagarri izango zaigun ikasleen gaitasunak eta gabeziak identifikatzeko.
- Ikasleen aurretestuak grabatuko ditugu, sekuentzia didaktikoaren amaieran aurretestu eta ondotestuetako emaitzak konparatu ahal izateko. Horrela, bai ikasleen aurrerapenak eta bai material didaktikoaren baliagarritasuna ikusi ahal izango ditugu.

Helburu komunikatiboa: abiapuntu gisa, aurretestua grabatzea, indarguneak eta ahulguneak aztertze.

2. Aurretestuaren ebaluazioa

Behin grabazioak eginda, zuetako bakoitzak bere bideoa ikusiko du eta, Classroom-en sortuko dugun kontrol-zerrenda erabiliz, nork bere burua ebaluatuko du. Ez izan zorrotzegiak zuen buruekin!, eta kontuan hartu hurrengo ahozko jardueretan hobetzeko pista lagungarriak emango dizkizuegula.

Classroomen sortu dugun aurretestua ebaluatzeko kontrol-zerrendan, ikasle bakoitzak bere aurretestuaren ebaluazioa egingo du. Karpeta batean edukiko dituzte bideo guztiak eta

[aurrettestua ebaluatzeko](#) txantiloia bana. Behin bakoitzak bere autoebaluazioa eginda, guztion artean komentatuko ditugu hobetzeko ditugun alderdiak.

Hori bukatutakoan, galdera hau egingo diegu hurrengo jarduerarekin lotzeko: “Zelan sentitu zarete besteen aurrean eta kameraren aurrean hitz egitean?”.

Helburu komunikatiboa: ahozko diskurtsoa eraikitzeke kontuan hartu beharrekoaz jabetzea, hizkuntza berbalari zein ez-berbalari erreparatuz.

3. Jendaurrean hitz egiteko beldurrak

Proposamen bat egingo dizuegu: egingo dugu horma-irudi bat denon artean jendaurrean hitz egiteko ditugun beldurrak biltzeko?

Padlet ([tutoriala](#)) bat osatuko dugu gure beldurrekin eta [urduritasunari aurre egiteko pilulak](#) erakutsiko dizkiegu. Denbora izanez gero, talde handian komentatuko dugu zelan egin diezaiekegun aurre beldur horiei.

Helburu komunikatiboa: jendaurrean hitz egiteko gure beldurrak eta sentsazioak antzematea, eta erlaxatzeko teknikak ezagutzea praktikan jartzeko.

1. MODULUA: IDATZIZKOTIK AHOZKORA

(5-6 saio)

1. Hizlari onaren dekalogo

Aurreko jardueretan aipatu dugun guztia laburtzeko, hizlari on batek kontuan hartu beharrekoak batu ditugu irudi batean. Zer iruditzen zaizue? Zerbait gehituko zenukete?

Ikasleen autoebaluazioetatik abiatuta, gure [hizlari onaren "dekalogoaren"](#) proposamena erakutsiko diegu.

Helburu komunikatiboa: orain arteko ahozkoari buruzko pautak guztiak laburtzea, hemendik aurrera kontuan hartzeko.

2. Gure telesaioaren atalak azaltzea

Orain bai: telesaioarekin hasiko gara! Gure telesaioak atal finko batzuk izango ditu, baina beste batzuk saio bakoitzean aldatuko ditugu. Agian, aldeztu aurretik jakingo duzue, edo ez



Atal finkoak hauek izango dira:

- Sarrera eta aurkezpena
- Eguraldia
- Ezetz asmatu
- Gure txoko kuttuna
- Iragarriak
- Atal berezia
- Gurekin jolastu nahi?
- Azken agurra

Atal bakoitza azalduko dugu.

- **Sarrera eta aurkezpena**
 - Hasierako agurra egiten da, eta lehenengo atalean parte hartuko dutenak aurkezten dira, ez bakarrik aurkezleak; guztien garrantzia goraipatzen da. Puntu garrantzitsuenak gogorarazten dira: mikrofono guztiek mutu egon behar dute, telesaioa handiago ikusteko 'txintxeta' jarri, galderen erantzunak jakiteko adi egon behar dute...
- **Eguraldia**
 - Egun horretako eguraldia zein hurrengo egunetarako iragarpena aurkeztuko

dute (tenperatura, prezipitazioak, haizea, abisu horiak/laranja/gorriak...). Aurkeztuko duten informazioa momentuan emango diegu, modu sinple batean.

- **Ezetz asmatu**

- Zuzeneko asmakizunak izango dira: pertsonaiak, eskolako pertsonak, objektuak, kirolak, herriak, paisaiak, hizkuntzak, monumentuak... Telesaioa egin baino lehen, ClassDojoren bidez aukeratuko ditugu deskribapena egingo duten hiru ikasleak. OBS programan txertatuko dugu kronometroaren bideoa, ikasleek asmakizunen erantzuna adosteko. Youtube-ko txata zabalduko dugu, eta, horrela, irakasleek erantzunak idatzi ahal izango dituzte kronometroa bukatzen denean (ez egin lehenago!!!).

- **Gure txoko kuttuna**

- Atal honek aldez aurreko prestakuntza eskatzen du. Talde bakoitzak kultur gomendio bat prestatu behar du. Hauen artean aukeratu beharko dute: aisialdia, liburuak, planak, ikuskizunak, abestiak, kontzertuak... Edo haiei beste zerbait bururatzen bazaie, egin dezakete.

- **Iragarkia:** musika gelan, [BandLab](#) programarekin taldeka sortutako iragarkia txertatuko dugu.

- **Atal berezia:** elkarriketak, esperimentuak, jolasak azaltzea, sukaldaritza, English time...

- Hau aukeran egongo litzateke, astearen arabera. Zerbait berezia egonez gero, hemen sartuko genuke. Ideia moduan, irakasleren bati, guraso-elkarteko bati... elkarriketa bat egitea izan daiteke (beste aukera bat izan daiteke familiak inplikatzeko eta haiei elkarriketa egitea). Pertsona horiek ezin badira etorri, aldez aurretik bat-bateko elkarriketa grabatu ahal dugu, eta, gero, bideoa txertatu telesaioan.

- **Gurekin jolastu nahi?**

- Zuzeneko jolasak izango dira, guk aldez aurretik prestatutakoak. Gaiak edo arloak ikasturteko garaia arabera aukeratuko ditugu eta roskoa (Educaplay), Wordwall, Kahoot...erabiliko ditugu. Lehia bi ikasleren artean izango da, eta ClassDojorekin aukeratuko ditugu ikasleak.

- **Azken agurra**

- Eskolan ospakizun bereziak baldin badaude, hemen aipatuko ditugu: Gabonak, inauteriak, txangoak...

<i>Helburu komunikatiboa: jarduera honetan, ahozko telesaioaren atalak zein diren ikustea</i>

eta atal bakoitzean zein informazio agertzen den eta haren ezaugarriak zein diren ezagutzea.

3. Ikasleen ekarpenak

Beste atalen bat bururatzen zaizue?

Baten bat egonez gero, egingarria den ala ez baloratuko dugu, eta, gehituz gero, telebista-erakundearen programazioan txertatu beharko dugu eta atal horren azalpena garatu.

Helburu komunikatiboa: ikasleei beren ekarpenak egiteko aukera ematea.

4. Ereduak aztertzea eta egokiena aukeratzea

Lanean hasi baino lehen, eredu batzuk aztertuko dituzue taldeka, hizlari onaren dekalogo aintzat hartuta. Talde bakoitzak eredu ezberdin bat izango du. Gero, beste talde batzuk eratuko ditugu, "Jakintsuen kontseilua" dinamika egiteko. Talde horietan, kide bakoitzak bere aurreko taldean aztertu duen ereduaz azalduko du. Horrela, guztiok hitz egiteko aukera izango duzue eta besteen ereduak ezagutu eta entzungo dituzue.

- Sarrera eta aurkezpena ([Mihiluze, lehenengo minutuak](#))
- Eguraldia: bideoa. Informazio-testua ([EITBko hainbat adibide](#)), [June](#)
- Ezetz asmatu. Deskribapena. [Bihotza](#), [Asmakizun erreza](#), [Asmakizun 'zailagoak'](#)
- Gure txoko kuttuna [Booktuber-rak](#)
- Iragarkiak. Publizitate testua ([Mugitu adibidea](#) - [Eroski](#) - [Eroski txirrindularitza](#)) - [aurreko urteetako ereduak](#)
- Atal berezia:
 - Elkarriketak [idatzizkoa](#)
 - Jarraibide testuak
 - [Argibideak idatziz](#) [Jarraibideak idatziz](#)
 - [Jolasen azalpenak](#) [Rush hour](#) - [Dobble](#) - [Dixit](#) ([Dixit kartak deskargatzeko](#))
 - [Eskulanak](#)
 - [Booktuber](#) [Iratxe](#) [Xabi](#) [Olatz](#)
 - Errezeta [Idatziz 1](#) [Idatziz 2](#) [Bideoak](#)
- Gurekin jolastu nahi? [Educaplay: Inauteriak EHn](#), [Euskara roskoa](#), [beste rosko bat](#), [etxeko hiztegiaren roskoa](#), [Gabonak](#)

- Azken agurra / egitaraua: [adibide 1](#)

Helburu komunikatiboa: telesaioaren ataletarako ereduak aztertzea eta baloratzea beren produkzioetarako oinarritzat hartzeko.

5. Atal bakoitzaren ekoizpenak sortzea

Ulertu dituzue eredu guztiak? Nola egingo zenituzkete zuek? Talde bakoitzari atal bat egokituko zaizue eta esango zenuketenaren gidoi txiki bat prestatu beharko duzue. Kontuan hartu hizlari onaren dekalogoia eta ereduetan agertu dena.

Helburu komunikatiboa: aurreko atazetan egindako lanak aintzat hartuta, ikasleak telesaioeko egitura gidatuetan trebatzea.

2. MODULUA: AHOZKO EZAGUNAK

(3 saio)

1. Ebaluaziorako kontrol-zerrendaren azalpena

Inprobisatzen hasi baino lehen, zuen ahozkoa hobetzeko kontuan hartu beharko dituzuen alderdi batzuk azalduko ditugu. Ez ahaztu horietaz hurrengo jarduerak egiten ditugunean!

[Dokumentu hau](#) zabalduko dugu, eta hemen agertzen diren itemak azalduko ditugu.

Helburu komunikatiboa: alde zurretik jakitea zertan zentratuko garen ahozkoa lantzean.

2. Nor da nor?

Gaur “Nor da nor?” jokoan jolastuko gara, 4-5 pertsonako taldeetan. Badakizue nola jolasten den? Zuetako bakoitzak, bekokian itsatsiko zaizuen *post-it* batean, eskola-komunitateko pertsona baten izena (ikasle, irakasle, atezain, garbitzaile, jantokiko begirale...) izango duzue idatzita.

Zuen ikaskide bakoitzak duen izena ikusiko duzue, baina ez zuena. Saiatu beharko duzue bekokian daukazuen pertsonaren izena asmatzen. Horretarako, bai edo ez erantzuteko galderak egin behar dituzue. Txanda bakoitzean, galdera bakarra edo asmatzeko saiakera egin ahal duzue.

Irakaslearen rola bideratzailearena eta dinamizatzailearena izango da. Hau da, taldez talde mugituko gara ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko, eta, beharra egonez gero, zuzentzeko, laguntzeko, ideiak emateko...

Helburu komunikatiboa: bat-batekotasunari garrantzia ematea eta trebatzen hastea, elkarrekintza sustatuz.

3. Marrazkiak edota hitzak emanda, istorioa asmatzea

Hiruko taldeetan jarriko gara, eta hiru marrazki/hitz emango zaizkizue. Zuen egitekoa irudi/hitz horiekin istorio bat sortzea eta kontatzea izango da.

Jarduera hau bi material desberdinekin egin daiteke: “*Mi estuche de pictos*” erabiliz edo

[Flippityn hitz-zerrenda bat](#) eginez. Ikasleak hirunaka jarriko dira (taldeak ClassDojorekin egin ahal dira edo libre), eta talde bakoitzari hiru hitz edo marrazki emango dizkiegu, eta horiekin istorio bat sortu beharko dute.

Hitz-zerrenda izan daiteke: sugea, zapata, eskola, arkatza, metroa, astoa, bizikleta, hondartza, mendia, euria, txokolatea, planeta, lorea, txanpona, linterna, pirata, altxorra, Ilargia, banana, Arrontegi, dragoia, gaztelua, koilara, iglua, ordenagailua...

Helburu komunikatiboa: irudimena landuz ahozko bat-batekotasunean trebatzen jarraitzea, elkarrekintza landuz.

4. Inprobisazioen autoebaluazioa.

Zuen aurrerapenak ikusteko prest zaudete? Moduluaren hasieran ikusi genuen [kontrol-zerrenda](#) bete beharko duzue orain, banaka. Gero, guztion artean komentatuko ditugu zein diren hobetu behar dituzuen alderdiak eta hobetzeko zer egin dezakegun.

Classroomen ikasle bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko ariketa sortuko dugu. [Kontrol-zerrendaren](#) kopia bana helaraziko diogu ikasle bakoitzari. Behin autoebaluazioak amaituta, guztion artean komentatuko ditugu hobetzeko ditugun alderdiak.

Helburu komunikatiboa: ahozko bat-bateko komunikazioan egindako aurrerapenak aztertzea eta autoerregulatzea.

3. MODULUA: AHOZKO EZEZAGUNAK EDO BAT-BATEKOAK

(2-3 saio)

1. Mugitu gabeko azalpena

Amaiera heltzear dago! Pare bat ikasle aukeratuko ditugu, eta marrazki bat deskribatu beharko dute, mugitu gabe, keinurik egin gabe eta besteei bizkarra emanez.

Besteok bitartean, ikaslea deskribatzen ari dena marraztu beharko duzue. Boluntariorik? Gogoratu!, deskribatzean, ezin da keinurik egin eta erabat geldirik egon behar da!

Marrazki hauek erabiliko ditugu ([irudia 1](#) eta [irudia 2](#)), boluntario bakoitzarentzat bat. Jarduera ainitzean, egindako marrazkiak jatorrizkoekin alderatuko ditugu, eta talde handian horren inguruko hausnarketa egingo dugu, eta ahozko komunikazioan gorputz-adierazpenak ematen dituen aukerez ohartuko gara (zer egingo zenukete deskribapena modu eraginkorragoan emateko?).

Aukera dago honen inguruko bideoak ikasleekin partekatzeke: [“El buen uso de las manos al hablar en público”](#)

Helburu komunikatiboa: gorputz-adierazpenaren garrantziaz jabetzea.

2. Ipuin baten marrazkiak emanda, istorioa asmatzea

Jarduera honetan, [marrazki hauek](#) emango dizkizuegu, eta zuen egitekoa irudi horiekin istorio bat sortzea eta kontatzea izango da. Irudien ordena errespetatu beharko duzue.

Bigarren jarduera hau egiteko, gaur, gure gela bi taldetan banatuko dugu, eta horietako bat beste gela batera joango da. Hau egin beharko duzue talde bakoitzean: hiruak batuko zarete, eta, [Dixiteko](#) karta bana oinarri hartuta, ipuin bat kontatu beharko duzue hiruron artean hirukote bakoitzean. Karta guztietan marrazki bat dago, eta hori erreferentzia moduan erabili beharko duzue. Lehenak sarrera kontatuko du, bigarrenak, garapena, eta hirugarrenak, amaiera (laukoteak egin beharko bagenu, garapena bitan zatituko genuke). Denbora izanez gero, beste ipuin bat kontatuko duzue, hiru karta desberdin erabiltuta.

Bigarren jarduera honetarako bikoizketa ordua erabiliko dugu; irakasle bakoitzak gela erdiarekin eramango du aurrera dinamika hau. Saioren hasieran, bi irakasleek erdua emango diete ikasleei, sormen-ariketa honetan dena (asmatutakoak) ondo egongo dela azpimarratuz. Horretarako, irakasle batek karta bat aterako du, eta istorioaren sarrera egiten hasiko da. Gero, besteak istorioaren garapenarekin jarraituko du, eta lehenengoak

garapena bukatuko du. Azkenik, bigarren irakasleak istorioa amaituko du. Aldaketa bakoitzean karta berri bat atera behar da, baina istorioak koherentzia eta kohesio minimoa izan behar du.

Ataza hauetan, irakaslearen rola moderatzailearena izango da eta, kasuz kasu, laguntzaile-bultzatzailearena ere izango da.

Gure proposamena 2 jarduerak egitea da; hala ere, denboraz estu ibiliz gero, bata ala bestea aukeratuko da.

Helburu komunikatiboa: irudimena landuz ahozko bat-batekotasunean trebatzen jarraitzea, elkarrekintza landuz.

3. Mintzodromoa

3-4ko taldeetan elkartuko gara, eta, txoko bakoitzean, mintzagai bat egongo da, eta, bertan, galdera batzuk izango dituzue gaiari buruz hitz egiten laguntzeko. Gai bakoitzaren gainean hitz egiteko, 15 minutu izango duzue eta, denbora bukatzen denean, hurrengo txokora pasatuko zarete.

Sei txoko antolatuko ditugu; horrela, talde txikiagotan guztiek eman ahal izango dute euren iritzia. Bakoitzari [triptiko](#) bat banatuko diogu eta [antolaketa honetan](#) agertzen da zein zenbaki eman behar diogun ikasle bakoitzari, taldeak ez errepikatzeko eta pertsona desderdinekin aritzeko. Guztiok, aldi berean, egongo gara gai berberari buruz hitz egiten, eta, 15 minutuak pasatuta, gaia aldatuko dugu.

- **Emakumeak eta kirola**

- Aritzen zara kirolen batean? Zenbat neska daude zure taldean?
- Zein da zure kirolik gustukoena? Eta zure kirolaririk gustukoena?
- Zenbat emakume ezagutzen duzu kirola egiteagatik famatuak direnak?
- Uste duzu berdintasuna dagoela kirol munduan emakume eta gizonen artean?
- Emakumeek eta gizonek aukera berdinak dituzte kirolen munduan? Soldata, presentzia komunikabideetan... Bidezkoa iruditzen zaizu?

- **Bideojokoak**

- Bideojokoak gustuko dituzu?
- Zeinetan jolasten zara? Bakarrik ala lagunekin? Zure adinerako egokiak

direla uste duzu?

- Egunean, zenbat denbora dedikatzen diozu jolasteari? Gurasoek mugatzen dizute denbora? Baiezkoa bada, zergatik uste duzu egiten dutela hori?
- Uste duzu ona dela osasunerako? Eta harremanetarako?
- Uste duzu gauzak ikasten direla bideojokoetan jolasten?

- **Aisialdia**

- Zer gustuko duzu egitea zure aisialdian?
- Antzerkira edo zinemara joatea aisialdiko jarduerak dira? Eta kirolen batean aritzea?
- Barakaldon aisialdirako aukera asko daude? Eta euskaraz egiten direnak?
- Uste duzu Barakaldoko Udalak horrelako jarduera gehiago antolatu behar dituela?
- Aisialdi-talderen bat ezagutzen duzu? Uste duzu aukera ona dela?
- Zer egiten da horrelako taldeetan? Ondo pasatzeko aukera ematen dizute?

Helburu komunikatiboa: ahozko bat-batekotasunean trebatzen jarraitzea eta elkarrekintza lantzea.

4. Inprobisazioen autoebaluazioa.

Prest zaudete zuen aurrerapenak zein diren ikusteko? Moduluaren hasieran ikusi genuen [kontrol-zerrenda](#) bete beharko duzue orain, banaka. Gero, guztion artean komentatuko ditugu zein diren hobetu behar dituzuen alderdiak eta hobetzeko zer egin dezakegun.

Classroomen ikasle bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko ariketa sortuko dugu eta Ikasleei [kontrol-zerrendaren](#) kopia bana helaraziko diegu. Behin bakoitzak bere autoebaluazioa eginda, guztion artean komentatuko ditugu hobetzeko ditugun alderdiak.

Helburu komunikatiboa: ahozko bat-bateko komunikazioan egindako aurrerapenak aztertzea eta autoerregulatzea.

AMAIERAKO EKOIZPENA

(2 saio)

1. Telesaioaren atalen aurreprestaketa

Taldetan banatuko zarete telesaioaren atal batzuk prestatzeko. Egin genituen ereduak gogoratzen dituzue? Horietan oinarrituta, orain, zuzeneko telesaioarako beharko duzuen sortuko duzue. Gogoratu! Zuzenean, ezin duzue irakurri idatzi duzuen; irakurtzen dakizuela badakit! Beraz, kontatuko duzuen entseatu behar duzue.

Hauek dira prestatu behar dituzuen atalak:

- Sarrera eta aurkezpena
- Gure txoko kuttuna
- Iragarkiak: [WebQuest](#) honetan daukazue egin beharrekoa. Iragarkia prest dagoenean, zuzeneko telesaio-emanaldian argitaratuko dugu.
- Atal berezia
- Azken agurra

Aldez aurretik landuta dagoenez, ikasleek 1. moduluko 5. jardueran egin genituen ereduak erabiliko dituzte zuzeneko telesaioa prestatzeko. Bat-batekotasunari eusteko, komenigarria izango litzateke talde bakoitzari ereduari prestatu ez duten beste atal bat egokitzea.

<i>Helburu komunikatiboa: ikasleek telesaioarako aurreprestaketa behar duten atalak sortzea.</i>
--

2. Zuzeneko telesaioa

Lagunok, prest al zaudete?! Iritsi da zuzeneko telesaioa grabatzeko momentua! Baina adi! Ikasle batzuk aukeratu behar ditugu “Eguraldia, Ezetz asmatu eta Gurekin jolastu nahi?” ataletan parte hartzeko. Boluntariorik? Boluntarioen artean ClassDojorekin erabakiko dugu zuzenean nor aterako den. Ados? Bagoaz grabatzera!

Zazpi ikasle boluntario aterako dira: bi ikasle eguraldirako, hiru “Ezetz asmatu” atalean eta bi “Gurekin jolastu nahi?” atalean. Irakasleak aldez aurretik prestatu beharko ditu eguraldia azaltzeko erabiliko diren marrazkiak, “Ezetz asmatu” ataleko asmakizunak eta “Gurekin jolastu nahi?” atalean egingo diren jolasak.

Zuzeneko telesaioa emititzeko OBS programa erabiliko dugu eta beste geletan YouTubean ikusi ahal izango dute zuzenean. Horretarako, programa hasieratik prestatzeko eta zuzenean emititzeko [tutoriala](#) jarraitu beharko dugu.

Helburu komunikatiboa: orain arte ikasitakoa praktikan jartzea eta telesaioa grabatzea.

EBALUAZIOA

(saio 1)

Telesaioa grabatuta daukagunean, talde handian ikusiko dugu eta, Classroomen partekatuko dizuegun [kontrol-zerrenda](#) erabiliz, nork bere burua ebaluatuko du. Talde-lana baloratzeko (koebaluazioa) [ebaluazio-diana](#) bat erabiliko dugu.

Ikasle bakoitzak bere ebaluazioa egingo du sortu dugun ondotestua ebaluatzeko kontrol-zerrendan. Classroomen bidez kopia bana bidaliko zaie, nork berea egiteko. Ondoren, taldeka, elkarrekin egindako lana ebaluatuko dute, etorkizunean, lantaldean aritzen direnean, kontuan izateko. Paperean emango diegu, haiek diana margotu ahal izateko.

Bestetik, irakasleak ikasle bakoitzaren [errubrika](#) beteko du egindako lan guztia ebaluatzeko. Bukatzeko, irakasleok gure Sekuentzia Didaktikoari buruzko [ebaluazio-hausnarketa](#) egingo dugu.

Helburu komunikatiboa: ahozko diskurtsoa eraikitzeko kontuan hartu beharrekoaz jabetzea, komunikazio berbalari zein ez-berbalari erreparatuz.

BIBLIOGRAFIA

- Altsasu BHI: Ahozkotasuna Proiektua.
<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ahozkotasuna/home?authuser=0>
- AHOZ AHO. Ahozkotasuna lantzeko baliabideak / Ahozkoa lantzeko ariketak.
<https://ahozkotasuna.wordpress.com/>
- ROJO GARCIA, Jon Ander (2012). *Testu-tipologia lantzeko programa*. Etxebarri: Zubia Editoriala, S. L. / Santillana Educación, S. L.